

TÊTES DES MULES, aurkezpen testua

Têtes des Mules konpainiak *L'Entresort* ikuskizuna taularatu du Mugalariak 2.0 egitasmoaren baitan. Baptiste Eliçagarayk eta Angela Neimanek 70. hamarkadan Estatu Batuetan eta Erresuma Batuan oso ohikoak ziren emanaldiak berreskuratu dituzte, deformazioak dituzten pertsonaiei protagonismoa emanez, eta bide batez, gizakion arteko normaltasuna eta desberdintasuna modu natural eta berezian azpimarratzeko.

Baxe Nafarroako Herri Antzokian egin dute mediazio saiora Garaziko Zentro Mediko Psikologikoan artatzen dituzten pertsonak gonbidatu dituzte. Esperientzia biziki interesgarria izan da Têtes des Mules konpainiako artistentzat, Zentroko arduradunentzat eta medioan parte hartu duten gaixoentzat.

Baptistek eta Angelak eurek proposatutako ariketen aurrean nolako erantzuna izan duten ikusteko aukera izan dutelako; Zentroko arduradunek, gaixoak hobeto ezagutzeko aukera izan dutelako, eta ezagutza hori abiapuntu izan litekeelako pertsona bakoitza nola artatu bideratzeko; eta azkenik, gaixoei bere buruarekin konfiantza hartzeko edota esperientzia berrietara egokitze gaitasuna dutela ikusteko balio izan dielako.